



2023ko
martxoa

ESPAINIAKO
ESTATUKO
PENTSIO
ERREFORMAREN

asterketa

LAB

AURKIBIDEA

| | |
|--|---|
| 1. Erreformari buruzko LABen balorazioa | 3 |
| 2. Nondik dator erreforma? | 4 |
| 3. Zeintzuk dira aldaketa nagusiak? | 5 |
| 3.1. Pentsioa eskuratzeko baldintzen gogortzea ez da atzera botatzen | 5 |
| 3.2. Pentsioen zenbatekoa | 5 |
| 3.3. Genero arrakalari aurre egiteko neurri eskasak | 6 |
| 3.4. Gizarte segurantzarako diru-sarrera eskasak eta kotizazio bidezkoak | 7 |
| 3.5. Kapitalaren egonkortasuna pentsioen kontura | 8 |
| 4. Pentsio duinak lortzeko LABen aldarrikapenak | 9 |

1. Erreformari buruzko LABen balorazioa

LAB sindikatutik uste dugu eskasa dela Espainiako Diputatuen Kongresuak onartu berri duten pentsio-sistemaren erreforma. Lehenik eta behin, ez duelako helburu izan aurreko erreformek inposaturiko murrizketei errotik heldu eta hauek lehengoratzea, bereziki 2011ko erreformarekin ezarritako murrizketak. Bigarrenik ez dituelako pentsio publiko duinak bermatzen gaur egun, eta are gutxiago etorkizunean: diru-sarrerren hobekuntzak ez dira nahikoak, eta denboran atzeratzen dira, berdin gertatzen da gutxieneko pentsioen igoerarekin. Gainera, pentsioa kalkulatzeko zenbaketa-urteak handitzeak (nahiz eta hasiera batean hautazkoa izan, 2040an behin betikoa izango da) murrizketa berriak ekarriko ditu etorkizunean.

Espainiar estatuan, erreformaz erreforma, sakoneko asmoa beti izan da argia: eskubideen murriztea eta pentsio eskuratzeko baldintzak gogortzea. Nahiz eta egun mahai gainean dagoen erreforma gehiago zentratzen den diru-sarrerren igoeran inbertsioen murrizketan baino, ez da aipaturiko joera aldatzen; eta horrela, langile klaseari pentsio duina izateko eskubidea bermatzen ez dion sistema bat iraurarazten du. Ikuspegi horretatik, ez litzake egokia izango Espainiako gobernuaren zein CCOO eta UGT sindikatuen ikuspegi baikorra konpartitzea. Are gehiago ikusten dugunean eskubideak murrizteko eta baldintzak gogortzeko joera Europar Batasuneko hainbat herrialdetan ematen dela, hala nola Alemanian edo Frantzian; zalantzarik gabe Bruselak erreforma honetan duen baldintzatzeko gaitasunaren isla.

Hortaz, pentsio duinen aldeko borrokan jarraitzea dagokigu. LAB sindikatutik Podemos, EAJ eta EH Bildu interpelatu nahi ditugu, dagokien arduratik, erreforman jaso ez diren alderdiak hobetzeko. Baina, gainera, uste dugu beharrezkoa dela Madrilen ezinezkoa dena Euskal Herrian posible egitea. Horregatik, EAE eta Nafarroako gobernuak pentsioen gaineko eskumen eskusiboa eskatu behar lukete, hemen erabakitzeko Euskal Herriko langileon pentsioei dagokiona.

Eskumen transferentzia hori gauzatzen ez den bitartean, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 5 urtez astero aldarrikatzen duen bezala, EAE eta Nafarroako gobernuak konpromisoa hartu beharko lukete gutxieneko pentsioak 1.080 eurora arte berehala osatzeko, 1.260 eurora arte igotzeko. Pentsio duinen eztabaidara funtsezko beste elementu bat ekarri behar dugu erdigunera: kalitatezko enplegua eta soldata. LAB sindikatutik enpleguaren balioa handitzearen alde egiten dugu, lan-baldintzak eta soldatak hobetuz; baita bizitza sostengatzen duten lan guztien funtzio sozialaren aitortzaren alde ere (enplegutik harago), eskubideak sortu eta aberastasunaren bidezko banaketa erdiesteko..

2. Nondik dator erreforma?

Pentsio erreforma hau Espainiako gobernuaren eta CCOO eta UGT sindikatuek hitzartu dute, Europar Komisioan Bruselarekin jada adostua bazen ere. Next Generation Funtsen azterketa egin genuenean aurretik ere salatu genuen Bruselak bere gain hartzen zuen ikuskapen rola: pentsioen erreformaz gain bestelako erreforma estrukturalak inposatzen baitzituen, lan erreforma, esaterako. Hau, funtsak esleitzearen ordainetan baldintza edo betebeharrak gisa. Erreforma honek zuzeneko eragingo du Euskal Herriko langileon bizi eta lan baldintzetan, baina erabakiak gure parte hartzerik gabe hartzen dira. Izan ere, erreforma hau eztabaidatu den eremuetan, Espainiako elkarrizketa sozialeko mahaietan, ez dago ordezkaria Euskal Herriko gehiengo sindikala.

Hori gutxi balitz, pentsio erreformari buruzko akordioaren berri eman da hain justu Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eskatzeko sei eguneko baraualdi-itxialdia egiten ari zela. Erreforma, hortaz, akordio kutsatu batean oinarritzen da; eta beste behin ere euskal langile klaseari eta bere aldarrikapenei bizkar emanez.

3. Zeintzuk dira aldaketa nagusiak?

3.1. Pentsioa eskuratzeko baldintzen gogortzea ez da atzera botatzen

67 urteko erretiro adina mantentzen da: ezin dira pentsio duinak bermatu azken pentsio erreformetan ezarritako murrizketak lehengoratu gabe. Era berean, ez litzateke ahaztu behar erretiro adina atzeratzeak zalantzan jartzen dituela langileon oinarrizko eskubideak: hala nola atsedenerako, osasunerako eta giza duintasunerako eskubidea, baita zahartzaroan ere; halaber, bizitzako denboraren zati bat jarduera sozial eta komunitarioetara bideratzeko. Onartezina da, beraz, egungo erreformak erretiroa hartzeko legezko adina 67 urtetan mantentzea, LAB sindikatutik 2011ko erreformaren aurretik jada salatzen genuenez.

15 urteko gutxieneko kotizazioa pentsioa jasotzeko: erreformak ez du pentsioa eskuratu ahal izateko gutxieneko kotizazio-aldia hobetzen, 15 urte erreal izaten jarraitzen baitu. Komeni da gogoratzea 2011 urtera arte Auzitegi Gorenak, Jurisprudentziaren bidez, egunak eta kuotak aintzat hartzea ahalbidetzen zuela. Alegia, aparteko ordainsariei dagozkien kotizazioak baliatzen ziren kotizatutako gutxieneko aldira iristeko. Horrela, 13 urte ingururekin kotizaziopeko pentsioa eskura zitekeen. Hala ere, 2011 urteko pentsio erreformak aukera hau blokeatu eta guztizko 15 urte ezartzen ditu gutxieneko aldi bezala. Neurri horrek langile klasearen eskubide galera nabarmena ekarri zuen, eta egungo erreformak mantendu egiten du.

3.2. Pentsioen zenbatekoa

Pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko zenbaketa-urteen handitzea: pentsioaren kalkulua egiteko behar den zenbaketa 30 urtera luzatzeko hasierako proposamena atzera bota arren, erretiro-pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartutako kotizazio-denbora handitzea berresten du erreformak. Hala, 2026tik aurrera, oinarri arautzailea kalkulurako erregimen dual bat jarriko da martxan, non pentsiodun berriek bi aukera izango dituzten: egun indarrean dagoena (azken 25 urteak aintzat hartuz kalkulatzea), edota 29 urtekoa, 2 urte okerrenak kentzeko aukerarekin. Neurri neutrotzat saldu badigute ere, tranpa bat da, izan ere, 2040 urtetik aurrera 25 urteen aukera ezabatuko da.

Gainera, neurri hau ezartzeko argudioetako bat da beharrezkoa dela lan-bizitza ezegonkorrenak dituzten pertsonak, kotizazio gabeko aldiak edo kotizazioen zenbateko oso txikiak dituzten pertsonak ez zigortzeko. Baina baieztapen hauek ez dira egia; izan ere, zenbaketa-urteak luzatu beharrean, aldi hori murriztu eta langilearen lan-bizitzako urterik onenak kontuan har daitezke.. Hortaz, aldaketa hori oso larria da; izan ere, pentsioa kalkulatzeko urte gehigarri bakoitzeko, pentsioaren zenbatekoa murrizten dela frogatu da, eta horrek murrizketa handiak dakarzkie etorkizuneko pentsiodunei.

1.080 eurora heltzen ez diren gutxieneko pentsioak: hainbat motatako gutxieneko pentsioak dauden arren, baina oro har planteatzen diren igoerak ez dira nahikoa. Erreferentzia gisa, egungo erreforman, ezkontiderik gabeko 65 urtetik gorako pertsonen pentsioaren zenbatekoa, hilean 783 eurotik 833 eurora igoerako da 4 urtean eta termino baliokideetan. Berrito ere, pobrezia mugaren azpitik geratuko dira, muzin eginez Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren aldarrikapenari; baita euskal gehiengo sindikala eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak aldarrikatzen dugun 1.260 eurokoa ere. Ezin dugu ahaztu Hego Euskal Herrian pentsiodunen %34,7k 1.000 eurotik beherako pentsioa jasotzen dutela, eta horietatik % 66, 8 emakumeak direla.

Illo horretan, nabarmenezkoa da Jaurlaritzak eta EH Bilduk alarguntza-pentsio minimoen inguruan lortutako akordioa. Akordio horren arabera, alargun-pentsio minimoak urtean 1.775 eta 3.800 euro artean igoko dira 4 urtean, kotizaziopeko pentsioekin parekatuz. Horrela, 2024an, pentsio horien zenbatekoa hilean 40 euro handituko da norbanakoen pentsioetan eta 126 euro senideak barne biltzen dituen alarguntza-pentsioetan. Era berean, gaur egun, alarguntza-pentsioak eta kotizazio gabeko pentsioak dira baxuenak, horien hartzaile nagusiak emakumeak direlarik. Igoera horri esker, alarguntza-pentsioak ez dira pobrezia mugaren azpitik egongo. LAB kritikoa da alarguntza-pentsioaren kontzeptuarekin berarekin; izan ere, familia-unitatea zaintzen soilik lan egin duten emakumeen pentsioa jasotzeko eskubidea bere ezkontideari mende baitago. Kotizaziopeko pentsio duina izateko eskubide unibertsalaren alde egiten dugu, banaketa hirukoitzaren proposamenaren baitan (30 orduko enplegu bermatua edo kotizatzen duen Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren baliokidea den kalte-ordaina, zaintzen eta aberastasunaren banaketa). Hala ere, alarguntza-pentsioak hobetzea lehentasunezko helburu taktikoa dela deritzogu.

Bestalde, erreformaren arabera, 2027an, kotizaziopeko erretiro-pentsioa 65 urtetik gorako eta ezintasun iraunkor absolutua izanda ezkontidea ardurapean duen titular batentzat ezin dela bi pertsona helduk osatutako etxe bati dagokion errentaren %60 baino txikiagoa izan. Horretarako, pertsona bakarreko etxe bati dagokion batez besteko errenta hartuko da kontuan, Estatistikako Institutu Nazionalaren Bizi Baldintzei buruzko Inkestan Espainiako Estaturako zehaztutako baldintzetan. Erreferentzia estatal hau, Hego Euskal Herriko langileen errealitatearen oso azpitik geratzen da.

3.3. Genero arrakalari aurre egiteko neurri eskasak

Kotizaziopeko pentsioen aldi baterako osagarria: emakumeen eta gizonen kotizaziopeko erretiro-pentsioen urteko batz bestekoaren zenbatekoaren ezberdintasuna %5 baino handiagoa den bitartean, urteko errebalorizazioan %10eko osagarri gehigarria aplikatuko da. Proposamen honek langileen aldarrikapen historiko bat aintzat hartzen duela ematen du, baina egiatan 2024-2025 urteetan zehar baino ez da indarrean egongo. Neurri hori erabat mugatua da, eta ez du onartzen bizi osoan zehar zaintza lanak doan egin dituzten eta kotizatze eskubidea izan ez duten emakumeekiko zor heteropatriarkala.

Kotizaziorik gabeko aldien estaldura eskasa emakumeentzat: pentsioetako genero-arrakalak %5 baino handiagoa izaten jarraitzen duen artean, kotizatze betebeharririk izan ez den hilabeteetan, 49. hiletik 60.

hilabetera, hilabete bakoitzari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren %100arekin osatuko dela ezartzen da. Aldiz, 61. hilabetetik 84. hilabetera oinarriaren %80arekin baino ez da osatuko.

Aurrera urrats bat da. Izan ere, orain arte kotizazio-oinarria kalkulatzeko aintzat hartzen zen aldian kotizatzeke betebeharririk gabeko hilabeteak agertuz gero lehen 48 hilabeteak baino ez zirelako gutxieneko kotizazio-oinarriarekin osatzen, eta gainontzeko hilabeteak gutxieneko kotizazio-oinarri horren %50arekin. Hala baina, aldi baterakoa da neurria, eta beraz, egiturazko arazo bati aurre egiteko azaleko irtenbidea. Horrek, betikotzen du emakume pentsiodunek jasatea prekarietatean oinarritutako lanaren sexu-banaketaren ondorioak.

Seme-alabak zaintzeko gizonen kotizaziorik gabeko aldien aldi baterako estaldura: aurreko atalean ezarritakoa aplikatuko da, hilabete berdinei dagokionez eta zenbateko berarekin, honako balditzetako bat betez gero. 1) Osagarria beste gurasoaren heriotzagatik alargun-pentsio batekin lotzea, elkarrekin izandako seme-alabengatik, betiere horietako batek umezurtz-pentsio bat jasotzeko eskubidea badu. 2) langileak erretiroagatik edo ezintasun iraunkorragatik kotizaziopeko pentsio bat jasotzen badu eta karrera profesionala jaiotza edo adopzioagatik eten behar izan badu. Bi kasuetan ez da eskatuko gizonaren pentsioa beste gurasoarena baino handiagoa izatea, ezta horrek genero-arrakala murrizteko osagarria jasotzeko eskubidea izatea. **Itxuraz neurri honek zaintza lanen banaketaren norabidean ekarpena egiten du, baina bere aldi baterako izaerak, eta pentsioetako genero-arrakala %5a baino handiagoa den artean baino mantentzen ez den neurria izateak, partxe bat gehiago bihurtzen du.**

3.4. Gizarte segurantzarako diru-sarrera eskasak eta kotizazio bidezkoak

Kotizazio-oinarrien mugaren igoera eskasa: kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtero eguneratuko da Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen bidez, eta kotizaziopeko pentsioen balioa ehuneko berarekin egokituko da. Alegia, KPIaren urte arteko aldakuntza-tasaren batz-besteko balioaren arabera moldatuko da (eta ez KPI errearen arabera, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aldarrikatzen duen moduan). Gainera, 2024 urtetik 2050 urtera arte ehuneko horri urte bakoitzean 1,2 kopuru finkoa gehituko zaio.

Adibide moduan, neurri hau 2023 urteko kotizazio-oinarri maximoari aplikatuko bagenio, aurreikusitako aldiaren bukaeran 70.777 euro inguruko muga maximoa izango genuke; **Europako beste estatu batzuetako balioen azpitik dagoen zifra, eta, gainera, denboran zehar oso modu progresiboan gauzatuko litzateke.** Neurri osagarri gisa, Espainiako gobernuak Elkartasunezko Kotizazio Gehigarria proposatzen du.

Elkartasunezko Kotizazio Gehigarria: Langileek jasotako ordainsariaren zenbatekoak gehieneko kotizazio-oinarria gaintzen badu, % 6ko kotizazio gehigarriaren emaitza izango da. Enpresariak bere gain hartuko du %5a eta langileak %1a, eta ez dira prestazio gisa kontatuko. 2025 urtetik aurrera kotizazioa % 1ekoa izango da, eta urtero ehuneko 0,25 puntu igoko da 2026tik 2045era bitarte, urte horretan % 6an finkatuta geratuko da. Aldi horretan, enpresariaren eta langilearen arteko kotizazioaren banaketa proportzio berean mantenduko da. Neurri honek, beraz, sistemaren diru-sarrerak handitzen ditu, baina **laneko errentei eragiten die nagusiki, ez kapitalaren errentei. Gainera, neurri urria da eta aplikazioa gehiegi luzatzen da denboran.**

Belaunaldi arteko Ekitate Mekanismoa (MEI, gaztelerazko sigletan): 2023ko urtarrilean jarri zen martxan mekanismo hau. 2013ko erreforman ezarritako Jasangarritasun Faktorea ordezkaten du, eta 2050eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Egun kotizazio hau % 0,6koa da, % 0,5a enpresari dagokio eta % 0,1a langileari. 2024 urtetik aurrera % 0,1 igoko da urtero, 2029an % 1,2ra iritsi arte, eta 2050era arte mantenduko da maila horretan. Kopuru horretatik, % 1 enpresari dagokio, eta % 0,2 langileari. Kotizazio finalista da, zuzenean sartuko da Erreserba Funtsean eta ezin izango da kendu. **Neurri honek sistemaren diru-sarrerak handitzen baditu ere, ez da nahikoa, denboran luzatzen da eta ez die egungo pentsioen beharrei erantzuten.**

Azken batean, positiboa da sistemaren diru-sarrerak handitzea planteatzea, baina erreforma honek era mugatuan heltzen dio gaiari. Igoerak urriak dira eta denboran luzatu eta atzeratzen dira. Gauzak horrela, erreformak baby boom belaunaldiaren erretiroari aurre egiteko izango duen gaitasuna zalantzarria izan daiteke. LAB sindikatuak beti defendatu du pentsio sistemaren bideragarritasuna diru-sarrerak handituz eta murrizketak egin gabe bermatu behar dela. Horretarako beharrezkoa da kotizazio-oinarri maximoen kentzea, baina gainera, aurrekontu bidez egiteari ere atea ireki behar zaio, pentsioak botere publikoek bermatu beharreko oinarritzko eskubidea delako.

3.5. Kapitalaren egonkortasuna pentsioen kontura

Inpaktu fiskalaren bidezko doikuntza politikak ezartzea: erreforma honek Erantzukizun Fiskaleko Autoritate Independentearen (AIReF, gaztelerazko sigletan) esku uzten du gehiegizko gastu publikoa ezabatzeko bideak identifikatu, aztertu eta proposatzeko eginkizun nagusia. Organo hau ustez independentea da, baina praktikan argudio fiskalez hornitzen ditu herritarren aurkako politikak eta eskubide sozialen murrizketak.

Horrela, 2025eko martxotik aurrera AIReFek Espainiako gobernuari ebaluazio txosten bat igorriko dio 3 urterik behin, erreforma honek proposatutako neurrien urteko batez besteko inpaktua BPGren ehunekoan adierazita. Horretarako, Europako Batzordeak argitaratutako azken zahartze-txostenaren kasu makroekonomiko eta demografiko berberak erabiliko ditu AIReF organoak. 2022-2050 urteen artean pentsioei loturiko batz besteko gastu publiko gordinak BPGaren %15a gainditzen ez duela bermatzeko helburua du.

Azken batean, erreforma honek AIReFek eskua sartzeko gaitasuna handitzen du. Gainera, lotura zuzena ezartzen du pentsioetarako gastuen eta kotizazio-sozial bidezko diru-sarreraren artean; pentsio sistema publikoa indartzeko aukera bakarra hori balitz bezala. **Neurri honek indartu egiten du pentsioak sistemaren "gehiegizko gastu" diren irudia,** eta "defizitaren" izenean egokitu behar direla; pentsiodunen bizi-baldintzak pobretu eta prekarizatzen diren bitartean.

4. Pentsio duinak lortzeko LABen aldarrikapenak

Espainiako Gobernuak gauzatu erreforma urrun dago langileok bizi dugun prekarizazio gero eta handiagoari sozialki justua den aterabide bat ematek. Erreformak, modu interesatuan, alde batera uzten du enplegu duinik gabe ez dagoena bidezko pentsiorik. Baldintza duinak dituzten enpleguetara sarbidea bermatzeko neurriak bultzatu behar dira, eta murrizketarik gabeko eskubideak langile klase osoarentzat.

LABen uste sendoa dugu ezin dela pentsio sistema publiko bat egituratu oinarrizko osagaien banaketa hirukoitzean aurrera egiten ez badugu: enpleguaren, zaintzak eta aberastasunaren banaketa. Ezin dugu ahaztu enpleguaren bidez sozialki beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak sortzen ditugula, eta enplegu-izaerarik ez duten zaintza lanen bidez eguneroko bizitza sostengatzen dugula gure inguru sozialean. Era berean, jendarte osoak du kolektiboki sortu aberastasuna jasotzeko eskubidea. Bai enplegurako sarbidea urratu zaien pertsonentzako prestazio sozialen, bai enplegu bidez jasotako soldata edo pentsio gisa.

Horregatik, pentsio duinen alde borrokan jarraituko dugu, Euskal Herriko txoko guztietan mobilizatuko gara gure aldarrikapenak lortu arte:

- Soldata duinik gabe ez dago pentsio justurik: legezko gutxieneko soldata arautzeko eskumena estatuarena bada ere, lanbide arteko hitzarmen kolektiboen bidez finka daiteke. 1.400 euroko gutxieneko soldata aldarrikatzen dugu, batz besteko soldataren %60ari dagokiona.
- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea berehala, 1.260 eurora iristeko bidean (gutxieneko soldataren %90).
- Zor heteropatriarkala ordaintzea: enplegura sarbidea izan ez dutenei ere gutxieneko pentsioa bermatzea. Lan egindako egun bakoitzak kotizatutako egun baten baliokidea izan behar du.
- Zaintzagatiko prestazioak, euskal zaintza sistema publiko-komunitarioaren eraikuntzaren norabidean, eta pentsioetan dagoen genero arrakalari aurre egiteko.
- Kotizazio mugen maximoak ezabatzea, eta pentsioak funts publiko gehiagoz hornitzeko politika fiskal berria garatzea.
- Erretiro adina 67 urtetik 65 urtera leheneratzea berehala, erretiro adina 60 urtekoa izateko bidean (58 urterekin erretiroa hartzeko trantsizioa hasiz).
- Pentsioa kalkulatzeko aldia, lan-bizitza osotik langilearentzat onuragarrienak diren 5 urteak aintzat hartzea.
- Gehieneko pentsioa gutxieneko pentsioaren hirukoitzera mugatzea.